

# SOLUZIOAK URTARRILA

Hona hemen urtarrilean Euskal Herriko herri desberdinetako umek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

**ÇYPGAYQUQPRWYY**  
**PPEQZ ZPAWIPTLUNT WNIQKUPPSWPI**  
**PWPEWYZ YGPDINYDANYZU WYDEÇIPTYUPW**  
**PYETÇWA OIWRÇPDUPYAK ZUÇYWRÇEKIWIÇPNPY**  
**WPBÇYEZÇPALLYA EQYMPPAN DÇQÇITÇYUTÇYÇ**  
**ÇÇPALIWR MAYNITAPWÇSINÇPUNYNPAZ EPINPTÇA**  
**HPPERWYIOÇPTPINZAGZ WPHITWZ EQGWIN DNIUGYU**  
**ÇETÇPA TYXİÇYINMEWYLEÇYTA EYPRI BNAÇQ**  
**ÇYPBÇEÇLYPAN SINWARTPU ZÇAIÇYÇPWYUÇP**  
**PÇÇALUPR EÇYÇPURÇYPIA**  
**EÇYÇIÇYÇPN DÇLYP**


Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikroa hartu eta kantari hasi da, maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorailuak hots gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, P, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.

## Mezu gordea

Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena? Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dagokion hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondoren, marraz ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maitezean.

**D E A B R U A K**  
**T E I L A T U E T A N**  
**A B C D E F G H I**  
**J K L M N O P Q R**  
**S T U V W X Y Z**

ALFABETO A



## Itzala

Hona hemen Garazi, oreka galdu eta egundoko muturrekoa hartu baino lehen. Aurki ezazu bere itzal zuzena.



## Margotu

Hemen ikusten dituzun igel hauek munduko igelik koloretsuenak dira, baina zerorrek margotu beharko dituzte. Erabili kolore gorria, urdina, berdea, marroia, horia, beltza eta morea.

## Pareak bai!

Konturatu bazara, igel guztiak badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietatik bik ez dute parerik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da.

## Bakoitzari berea

Letu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan ageri dena ez dela behar bada zuk ezagutzen duzuna.

## Sudokua

Gauza handiak egin genituen 2021ean, eta are handiagoak egingo ditugu AURTEN. Bete itzazu hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiez (A, U, R, T, E eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A	U	N	E	T	R
E	T	R	N	U	A
U	R	A	T	E	N
T	N	E	A	R	U
R	A	T	U	N	E
N	E	U	R	A	T

## ZazpiKoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.

